

Soraluzeko Gaztetxoak eta Euskara

-Gaitasuna, erabilera eta jarrerei buruzko azterketa-

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.

- 1.1.- Ikerketaren helburuak.**
- 1.2.- Erabilitako metodologia. Fitxa teknikoa.**
- 1.3.- Herriari buruzko zenbait datu.**

2.- HIZKUNTZA GAITASUNA.

- 2.1.- Hizkuntza gaitasunaren tipologiak. Kontzeptu teorikoak.**
 - 2.1.1. Hizkuntza gaitasuna oinarritzko tipologian.
 - 2.1.2. Hizkuntza gaitasuna tipologia bikoitzean.
- 2.2.- Hizkuntza gaitasuna eta transmisio guneak.**
 - 2.2.1.- Familia:ama hizkuntza edo lehen hizkuntza.
 - 2.2.1.1. Euskararen transmisioa familian.
- 2.3.- Hizkuntza gaitasunaren banaketa soziala.**
 - 2.3.1. Sexuaren arabera
 - 2.3.2. Gurasoen jatorriaren arabera.
- 2.4.- Gurasoen hizkuntza gaitasuna eta bilakaera.**

3.- EUSKARAREN ERABILERA.

3.1.- Erabilera guneak.

3.1.1.- Euskararen erabilera familian.

3.1.2.- Euskararen erabilera ikastetxean.

3.1.3.- Euskararen erabilera kalean.

3.1.4.- Bestelako aisialdi guneak.

3.2. - Erabileraren banaketa soziala.

3.2.1.- Ama hizkuntza.

3.2.2.- Sexua.

3.3.- Erabileraren kale neurketa.

3.4.- Erabilera aitortua eta benetakoa.

4.- EUSKARAREKIKO INTERESA ETA JARRERA.

4.1.- Interesa.

4.2.- Jarrera.

5.- ONDORIOAK.

6.- BIBLIOGRAFIA.

1.- SARRERA

1.1.- Ikerketaren helburuak.

Ikerketa honek Soralezko gaztetxoek hizkuntz errealitatearen berri jaso nahi izan du. Horretarako, euskarazko gaitasunari, erabilerari nahiz jarrerari dagozkien aldagai ugari buruzko infomazioa erabili dugu. Jakinekoea da hizkuntza gaitasunak gora egiten diharduela azken urteetan herriko haur eta gazteen artean. Erabilerari buruzko pertzepzio batzuk ere badauzkagu, ez baikorregiak egia esateko, aukeran euskara gutxi entzuten baita gaztetxoek ahoetan. Badakigu ere gaztetxoek euskararen erabileran hainbat faktorek eragiten dutela (gaitasun erlatiboa, harreman sarea, bizindarra eta interesa) nahiz eta guztiek ez duten maila berean eragiten.

Uste eta pertzepzio horiek datuetara ekarri nahi izan ditugu, beraz, azterketa honetan, gaztetxoek euskarazko gaitasuna zenbatekoa eta nolakoa den jakin, gaztetxoek euskara zenbat, non eta norekin erabiltzen duten jakin eta gaztetxoek, eta beren gurasoek, euskararen inguruan zein jarrera duten jakin.

1.2.- Erabilitako metodologia. Fitxa teknikoa.

Inkesta bidezko azterlana egin dugu, metodologia kuantitatiboaz baliatuz, eta alde batera utziz diskurtsoen azterketa eta interpretazioak. Zatitxo batean, hainbat eremutako erabilera aztertzen aritu garenean alegia, inkestarekin batera behaketa zuzena ere erabili dugu, kale neurketaren teknika erabili dugularik. Orotara 289 inkesta egin ditugu; 141 mutilei eta 148 neskei. Horietako 150 lehen hezkuntzan eta 139 bigarren hezkuntzan. Unibertso osoa aztertu dugu, ez dugu laginik erabili hortaz. Unibertso osoa aztertu izan hori izan daiteke agian metodoari dagokionean azpimarragarriena, aztergai ziren adin-tarteak bere osoan aztertu izanak fidagarritasuna baitakarkie emaitzei. Gurasoen ezagutza, erabilera eta jarrerari buruzko informazioa ustiatzeko orduan, familiak egin dugu datuen tratamendua, gurasoak berberak zeuzkaten ikasleak identifikatuz eta familia bakoitzeko inkesta bakarra helaraziz.

Galdeketa 2005eko azken hiruhilabetekoan burutu zen herriko bi ikastetxeetan, *Plaentxi Lehen Hezkuntzako Ikastetxean* eta *Soraluze Bigarren Hezkuntzako Institutoan*. Horrek esatea nahi du Lehen eta Bigarren Hezkuntzan diharduten herriko ikasle guztiak galdekatu ditugula, oso oso gutxi direlako, batere ez ez esatearren, adin horretan herritik kanpora ikasten duten ikasleak. Bi galdekizun ezberdin erabili ziren, bata Lehen Hezkuntzako ikasleentzako eta, bestea, Bigarren Hezkuntzakoentzako. Azken honetan jarrera eta interesari buruzko galderak zeuden. Erantzun batzuk ikasleek beraiek eman dituzte, adinaren arabera irakasleen laguntzaz aritu direlarik. Gurasoei zegokien informazioa eskuratzeko gurasoek beraiek erantzundako galderak erabili ditugu¹.

¹ *Ikerketan erabilitako inkestak azterlanaren eranskinetan aurki daitezke.*

1.3.- Herriari buruzko zenbait datu.

Soraluze Gipuzkoako iparmendebaldean kokatuta dago, Deba ibaiak zeharkatzen duten bailara estu baten hondoa; Debarrena eskualdean. Honako herri hauekin egiten du muga, ekialdean Elgoibarrekin, hegoaldean Bergararekin eta mendebaldean Eibarrekin. Poblazio-entitate bakarra osatzen du. Hirigunea, ibaiaren ibilguari jarraiki, kalearte jarraituetan eraikitako etxebizitza-multzo batek osatzen du. Lau baserri-auzo ere badira.

Indarrean dagoen Biztanle Erroldako datuen arabera, 2007ko urtarrilaren 1ekoa alegia, 4.067 lagun bizi dira herrian; horietatik 2.027 gizona dira eta 2.040 emakumezkoak. 4.067 biztanle horietatik, 1.989 Soraluzen jaioak dira, 823 gure probintziako gainerako herrietan, 196 Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta 834 estatuko gainerako herrialdeetan eta 225 atzerrian. Azken datu horixe da, akaso, azpimarragarriena, azken bosturtekoan beste kontinente batzuetatik heldutakoen kopuru handia, batez ere ekuatorialarrena (71 pertsona) eta marokoarrena (41 pertsona).

Bizkaiarekin muga egiten duen eskualdean dagoenez, mendebaldeko euskalkia erabiltzen da Soraluzen. 2001eko erroldako datuen arabera, biztanleen %60 dira euskaldunak; %17 ia euskaldunak eta %23 erdaldunak. Euskaldunen artean alfabetatuak %60 dira eta %29 erdizka alfabetatuta daude. Ama hizkuntzari dagokionean, berriz, %49k euskara dauka ama hizkuntza moduan; %44k gaztelera; %3k euskara eta gaztelera eta %4k beste hizkuntzaren bat. Bukatzeko, etxean erabiltzen den hizkuntzari begiratzen badiogu, euskara %32k darabil eta %20k biak darabiltza.

2.- HIZKUNTZA GAITASUNA

2.1. Hizkuntza gaitasunaren tipologiak. Kontzeptu teorikoak.

Hizkuntza Gaitasuna aztertzerakoan ideia honen atzean zer dagoen finkatu behar da lehendabizi, baina eginkizun hori ez da lan erraza. Hizkuntza gaitasuna era askotan uler daiteke kontuan hartzen diren erabilera arloak eta funtzioak tartean daudelarik. Itziar Basterretxeak² ezagutza maila aztertzeari buruz hauxe dio: "Hizkuntza batean ezagutza maila aztertzerakoan arlo bi izan behar ditugu kontuan: 1. Hizkuntza horretan beste hizkuntza bati dagozkion osagarri edo ezaugarriak erabili gabe aritzeko gaitasuna. 2. Hizkuntza horren aldakin ezberdinak modu egokian erabiltzeko gaitasuna. Hiztun elebidunak dira bi arlo hauek sozialki nahikotzat jotzen den mailan menperatzen dituztenak. Dena dela, nahikotasun maila horri buruz esan behar da, alde batetik, ez dela linguistikoki erraza finkatzen eta, bestetik, gizarte guztiek ez dutela maila berdina eskatzen".

Bistan dago ezaguera, gaitasun edo nahikotasun mailarik dagoenentz esan ahal izateko mugak finkagaitzak direla. Gauzak horrela, eta pragmatikotasunaren ildotik abiatuta (eta erabaki honen oinarri sendoaren ezaz jabetuta), ikerketa-lan honetan erabiliko den "hizkuntza gaitasun" kontzeptua Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak helburu bertsuekin erabilitako "Hizkuntza Gaitasunaren Tipologiaren" irizpideetan oinarritu da.

Aipatutako tipologia finkatzerakoan bi bertsio erabiltzen ditu HPINek: Oinarrizko Tipologia eta Tipologia Bikoitza (1. Irudia).

Oinarrizko Tipologian sei multzo bereizten dira elebitasun motaren arabera:

1. Elebidun hartzaile euskaldunak:

Euskaraz "ongi" edo "nahikoa ongi" hitz egiten dakite eta erdaraz "zertxobait", "hitz batzuk" edo "ezer ez" hitz egiten dakite.

2. Euskal elebidunak:

Euskaraz nahiz erdaraz "ongi" edo "nahikoa ongi" hitz egiten dakite eta orokorrean, euskaraz erdaraz baino errazago edo erosotasun handiagorekin hitz egiten dute.

² Itziar Basterretxearen aipeman hau Iñaki Martínez de Luna soziologoak 1995. urtean Hizkuntza Politikako Idazkaritza Nagusiarentzat egin zuen "Etorkizuna aurrikusten: EAEko gaztetxoan egoera soziolinguistikoa." lanetik dago hartuta.

3. Elebidun orekatuak:

Euskaraz nahiz erdaraz "ongi" edo "nahikoa ongi" hitz egiten dakite eta orokorrean, "berdin hitz egiten dute euskaraz eta erdaraz".

4. Erdal elebidunak:

Euskaraz nahiz erdaraz "ongi" edo "nahikoa ongi" hitz egiten dakite eta orokorrean, "erdaraz euskaraz baino errazago" edo erosotasun handiagoarekin hitz egiten dute.

5. Elebidun hartzaile erdaldunak:

Erdaraz "ongi" edo "nahikoa ongi" hitz egiten dakite eta euskaraz:

- "zertxobait" hitz egiten dakite eta

- "zertxobait", "hitz batzuk" edo "ezer ez" ulertu eta irakurtzen dute.

6. Erdaldun elebakarrak:

Erdaraz "ongi" edo "nahikoa ongi" hitz egiten dakite eta euskaraz:

- "hitz batzuk" edo "ezer ez" hitz egiten dakite eta

- "zertxobait", "hitz batzuk" edo "ezer ez" ulertu eta irakurtzen dute.


Kontuan hartzekoa da HPINek berak gazte eta helduez eraikitzen dituen tipologiak ez direla guztiz berdinak eta bata eta bestea ez direla simetrikoak. Helduen kasuan agertzen den "euskaldun elebakarren" multzoa ez da gaztetxoaren artean ematen, eta, bere ordez, "elebidun hartzaile euskaldunak" ditugu, hau da, gaztelania eta euskara dakizkitenak, lehendabiziko hori erabiltzekoan nolabaiteko zailtasunik sentitzen badute ere.

Hala eta guztiz ere, ez dugu uste "elebidun hartzaile euskaldunak" eta "elebidun hartzaile erdaldunak" gaztetxo edo nerabeen artean simetrikoak direnik, zeren eta gehienbat erdal kutsuan murgildurik dagoen gurea bezalako gizartean gaztelaniaren ezaguera ziurtatuta baitago, euskararekin gertatzen ez den bezala. Aurreko "oinarrizko tipologiatik" abiatuta "tipologia bikoitzean" laburbiltzen dira emaitzak hurrengo irudian.

Aztergai ditugun haur eta gaztetxoei buruzko tipologiaz gainera, HPINek helduentzako sortutako elebitasun tipologia ere jarri nahi izan dugu ondoan. Bertan ondo ikus daitekeenez, gaztetxoen artean “elebidun hartzailea” dena “euskaldun elebakar” bihurtzen da helduen kasuan.(1. Irudia)³

³ Elebitasun tipologiaren irudi hau Iñaki Martínez de Luna soziologoak darabil 1995. urtean Hiznuntza Politikako Idazkaritza Nagusiarentzat egin zuen “Etorkizuna aurrirakusten: EAEko gaztetxoen egoera soziolinguistikoa.” lanean.


1. IRUDIA: ELEBITASUN TIPOLOGIAK



2.1.1. Hizkuntza gaitasuna Oinarrizko Tipologian


Oinarrizko tipologiaren arabera (**1. grafikoa**), *Euskal Elebidunek* -33,9- eta *Elebidun Orekatuek* -32,9- osatzen dituzte talderik handienak; alegia, euskaraz nahiz erdaraz *ongi* edo *nahikoa ongi* hitz egin eta orohar *euskaraz erderaz baino errazago edota bezain erraz* moldatzen direnak. Horien ondotik, eta portzentaia esanguratsua da hauena -21,45-, *erdal elebidunak* datoz, *erdaraz errazago edo erosotasun handiagoz* dihardutenak.

1. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GAITASUNA OINARRIZKO TIPOLOGIAN



Zenbatekoak oso antzerakoak dira adinari erraparatuz gero. *Lehen Hezkuntzako* eta *Bigarren Hezkuntzako* ikasleen gaitasuna alderatzen badugu (**2. grafikoa**), apenas dago alderik batzuetatik besteetara, eta pentsa zitekeenaren kontrara, *elebidun orekatuak* -38,8- eta *erdal elebidunak* -25,2- gehixeago dira gazteenen tartean. Atentzioa ematen du gaztetxoenen artean, lehen hezkuntzako lehendabiziko mailako ikasleen artean alegia (6urte), elebidun orekatuen taldeak daukan pisua, ikasleen erdia baino gehiago baitago talde horretan -55,9-. Horren oinarrian, aurrerago ikusiko dugun moduan, ikasleen ama hizkuntzan erdarak daukan presentzia dago. Ikasleak etxetik euskaldunak direnetan, ohikoena izaten da adinean gora egin eta sozializazio esparru berriekin harremanetan jarri ahala erdararen presentzia, eta ondorioz gaitasuna, areagotzea. Hemen, ordea, ez da horrelakorik ikusten, hasieratik bertatik erdarazko gaitasuna dakarte ikasleek. Ikasleen hirutik bik -66,4- erdara daukate ama hizkuntza bezala.


2. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GAITASUNA OINARRIZKO TIPOLOGIAN ADINAREN ARABERA



2.1.2. Hizkuntza gaitasuna Tipologia Bikoitzean

Oinarrizko Tipologiaren emaitzak *euskaldun-erdaldun* Tipologia Bikoitzera ekarrita, azpimarratu behar da euskaldunen nagusitasuna ia erabatekoa dela -92-, euskalduntzat hartzeko gaitasunik ez dutenak hamarretik batera -%8- iristen ez diren bitartean (**3. grafikoa**). Elebitasunerako bidean aurrerakada ikaragarria eman da beraz, euskalduntzat hartu ditugun ia guztiak, elebidun hartzaile euskaldunen %3,8 hori ez beste guztiak, euskaraz eta erdaraz gaitasun nahikoa baitaude.

3. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GAITASUNA TIPOLOGIA BIKOITZEAN



2.2. Hizkuntza gaitasuna eta transmisio guneak

Atal honetan belaunaldi berriek euskara bereganatzeko dituzten gune nagusien ikuspuntutik aztertu dugu euskararen gaitasuna, familiaren eta hezkuntza sistemaren ikuspuntutik hain zuzen ere. Gune hauek aparteko garrantzia daukate haur eta gaztetxoak gizarteratzeko orduan eta euskararen transmisio-prozesuan ere bete-betean hartzen dute parte.

Familiari dagokionean *ama hizkuntza* edo *lehen hizkuntza* hartu da kontuan; hau da, haurtzaroko lehenengo bi-hiru urteetan etxean ikasitako eta erabilitako hizkuntza edo hizkuntzak: *euskara* soilik, *erdara* soilik edota *euskara eta erdara* nahasian.

Hezkuntza sistemari dagokionez, hizkuntza ereduari erreparatu diogu, modu oso mugatuan bada ere. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bi hizkuntza ofizialak hezkuntza sisteman gauzatzean datza hizkuntza ereduaren izakera. Hizkuntza ereduaren azterketa hori, esan bezala, modu mugatuan egin ahal izan dugu. Ofizialtasuna duten hizkuntza biak irakaskuntzan sartzen diren neurriaren arabera osatutako hiru hizkuntza erduetatik “A” ereduak ez da eskaintzen herrian eta “B” ereduak Bigarren Hezkuntzako azken bi mailetan baino ez dago. Hortaz, haur eta gaztetxoaren hizkuntza ezagutza eta erabileraren ereduak azterketa Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleen artean bakarrik burutu dugu, halaberrez. Gainontzeko irakaskuntza-mailetan bakarra den “D” ereduko datuak ere ez dira guztiz erabilgarriak gertatzen, bestelako aukerarik ez dagoenez, euskarazko gaitasun nahikorik ez daukaten hainbat ikasleek – etorkinak- eredu horretan baitihardute, nahiz eta hizkuntzaren aparteko lanketa egiten duten. Ikasle horien hizkuntzazko ezagutzak eta jardunak desitxuratu egiten du ereduaren araberrako emaitzen irakurketa.

Aipatutako inguruneen araberrako analisiari hasiera eman aurretik, baina, komenigarria izan liteke ahalegin honetan erabiliko ditugun aldagai biek elkarrekin loturarik ba ote daukaten jakitea, nahiz eta, berriro diogu, balizko lotura hori adin-tarte oso mugatuan egin ahal izango dugun. **(1. taula).**

AMA HIZKUNTZA	GUZTIRA		HIZKUNTZA EREDUA			
			“B”		“D”	
Euskara	97	35,79	0	0,00	97	33,56
Erdara	110	40,59	17	94,44	127	43,94
Biak	60	22,14	0	0,00	60	20,76
Beste bat	4	1,48	1	5,56	5	1,73

Lotura hori egon badagoela baieztatzera garamatzate goiko taulako datuek **(1. taula)**. Beraien ikasketak eredu elebidunean egiten dituzten ikasle guztiek – 18-erdara edo besteren bat daukate ama hizkuntza bezala.

Haurra eskolaratzen den hizkuntza ereduaren eta haurraren hizkuntza gaitasunaren arteko lotura ere bista-bistakoa da, ikusi besterik ez dago B ereduan ikasten duten ikasleen euskara ezagutza zein mugatua den. Erdia baino gehiago -55,5- erdalduna da eta euskalduntzat har daitezkeen artean ere %12 baino ez dira elebidun orekatuak.

Handia da, ikusi besterik ez dago, Soraluzeko udalerrian hezkuntza sistemak familiak sortu ezin duen hizkuntza gaitasuna transmititzeko orduan hartzen duen garrantzia. Etxe-ingurune erdaldunetatik datozen gaztetxoak, hirutik bi dira, hizkuntza eredu euskaldunetan dihardute, nahiz eta eredu euskaldunaren aldeko hautua ez den hautu librea izan, beste aukerarik ezean egindakoa baizik.

2.2.1. Familia: ama hizkuntza edo lehen hizkuntza

Gauza jakina da familiak eragin handia duela haurrak gizarteratzeko orduan. Hizkuntza gaitasunari dagokionean ere familiaren pisua nabarmena da, izan ere, argi eta garbi ikusten da etxean ikasitako lehendabiziko hizkuntza *euskara* denean, euskararen gaitasuna handiagoa dela.

Elebitasun Tipologia Bikoitzean dagoeneko ikus daitezke esandakoaren lehendabiziko zantzuak. *Euskara* lehen hizkuntza (bakarrik edo erdararekin batera) bezala izan duten haur eta gaztetxo gehiengo ia erabatekoa -99,35- euskalduna da. Proporzio hori jaitsi egiten da zerbait ama hizkuntzat *erdara* izan dutenen artean; hauen arteko %16,7 erdaldunak baitira.

Familiak haurraren hizkuntza gaitasunean duen eragin hori oso argi ikusten da Tipologia Bikoitzetik Oinarrizko Tipologiara igarotzerakoan; alegia, euskaldun deitu ditugun horiek zein euskara gaitasun maila duten ikustera igarotzerakoan **(2. taula)**. Horrela, lehen hizkuntza bezala *euskara* bakarrik duten haurren artean *euskal elebidunak* dira nagusi -70,1-, lehen hizkuntza bezala *biak* dituzten artean *elebidun orekatuak* -51,7- eta lehen hizkuntza bezala erdara bakarrik dutenen artean erdal elebidunak -39,4-. Azken talde honi dagokionean, esan *erdal elebidunen* portzentaia gizen samarra dela, baina logikoa guztiz, ze etxean euskararik jaso ez duenak berba egiterakoan erdaraz errazago egitea normala da. Baina handia da ere, aurrekoa bezain bestekoa – 35,6-, *elebidun orekatuek* daukaten pisua, erdaraz eta euskaraz erraztasun antzekoaz dihardutenena alegia.

Esan ere ama hizkuntza modura *euskara* bakarrik izan duten neska-mutikoen artean soilik daudela *elebidun hartzaile euskaldunak*, erdera ulertu bai baina nekez berba egiten duenak -11,3-.

2. TAULA: HIZKUNTZA GAITASUNAREN TIPOLOGIA HAURREN AMA HIZKUNTZAREN ARABERA

AMA HIZKUNTZA						
	EUSKARA		ERDARA		BIAK	
EUSKALDUNAK						
Elebidun hartzaile euskaldunak	11	11,3	0	0	0	0
Euskal elebidunak	68	70,1	11	8,3	19	31,7
Elebidun orekatuak	17	17,5	47	35,6	31	51,7
Erdal elebidunak	1	1	52	39,4	9	15
Euskaldunak guztira	97	100	110	100	59	100
ERDALDUNAK						
Elebidun hartzaile erdaldunak	0	0	13	9,85	13	18,8
Erdaldun elebakarrak	0	0	9	6,8	9	13
Erdaldunak guztira	0	0	22	16,7	1	1,7
GUZTIRA	97	100	132	100	60	100


2.2.1.1. Euskararen transmisioa familian

Familia da, lehen esan dugun moduan, hizkuntza transmisiorako biderik natural eta eraginkorra. Halaber, belaunaldien arteko euskararen transmisioa edozein hizkuntzaren osasun egoeraren adierazle ezin hobea bihurtzen da. Guraso eta seme-alaben arteko transmisioak, ordea, baldintza bat dauka derrigor bete beharrekoa. Ezinbestekoa da gutxienez gurasoetakoren batek euskara jakitea. Horrelakorik ezean, bestelako bideak erabili beharko ditu haurrak euskara jasotzeko.

Horiek horrela, euskararen familia bidezko transmisioaren egoera ezagutzeko helburuarekin, haur eta gazteen lehenengo hizkuntza gurasoen euskararen ezagutzarekin harremanetan jarri dugu.

Ikusi dugu (**4. grafikoa**), baldintzarik onenetan, guraso biak euskaraz dakitenean, ia erabat transmititzen dela euskara gurasoengandik seme-alabengana -% 96-. Kopuruek apur bat behera egiten dute gurasoen arteko batek euskararik ez dakienean. Kasu horietan hamarretik ia bederatzik -% 88,8- dira familia bitartez euskarari jarraipena ematen dioten bikoteak. Irakurketa kontrara ere egin daiteke, ordea, eta esan hamarretik batek, baldintza aproposak izanik ere, ez duela euskararik transmititzen. Bikotea mistoa denean, aldea dago euskara dakiena bata ala bestea den. Euskalduna ama denean zerbait hobea da transmisioa -91,8- euskalduna aita denean baino -82,6-⁴.

4. GRAFIKOA: EUSKARAREN TRANSMISIOA GURASOEN HIZKUNTZA EZAGUTZAREN ARABERA



⁴. Biak erdaldunak izanik, %11-k dio gaztearekin batera euskara transmititu diola seme-alabari. Datu hori logikarik gabekoa da eta gurasoek gaitasunari buruz duten pertzepzio ez erabat zuzenean dauka oinarria.

2.3. Hizkuntza gaitasunaren banaketa soziala

Soraluzeko haur eta gaztetxoek egoera soziolinguistikoa aztertzeko garaian badira esanguratsuak izan daitezkeen beste zenbait aldagai ere. Aztergai direnen sexua eta beraien gurasoen jatorria dira horietako bi.

2.3.1. Sexuaren arabera

Aztertzen ari garen neska-mutikoen sexuaren araberako banaketari begiratuta, ez oinarritzko tipologian ez tipologia bikoitzean ikusten da alde handirik **(3. taula)**. Erdaldunen artean dago, nonbait badago, alderik handiena, neska erdaldunak mutilak halako bi baitira. Nolanahi ere den, hain dira kopuruak txikiak -23 ikasle ari gara-, ze ez dugun uste aintzakotzat hartzeko kontua denik.

Euskaldunen multzoan ere badago alderen bat, txikia bada ere. Hemen ere, erdaldunen artean bezala, euskarazko gaitasun handixeagoa erakusten dute mutilek. Mutilek portzentaia handiagoak dituzten *euskal elebidunen* eta *elebidun orekatuen* artean. Neskak, aldiz, nagusi dira *erdal elebidunen* artean.


	SEXUA			
	MUTILAK		NESKAK	
	Abs.	%	Abs.	%
EUSKALDUNAK				
Elebidun hartzaile euskaldunak	6	4,3	5	3,4
Euskal elebidunak	52	36,9	46	31,1
Elebidun orekatuak	49	34,75	46	31,1
Erdal elebidunak	26	18,4	36	24,3
ERDALDUNAK				
Elebidun hartzaile erdaldunak	4	2,8	10	6,7
Erdaldun elebakarrak	4	2,8	5	3,4

2.3.2. Gurasoen jatorriaren arabera

Gurasoen jatorria oinarri hartuta, hiru multzotako sailkapena osatu dugu. *Bertakoak*, guraso biak EAEn edo Nafarroan jaiotzen dituzten neska-mutikoen kasuan; *Nahasiak*, gurasoetako bat kanpoan jaiotakoa denean; eta *Kanpotarrak*, guraso biak direnean kanpoan jaiotakoak.

Guraso biak bertakoak dituzten neska-mutiko guztiak – % 99,4- euskaldunak dira; bai eta gurasoetako bat bertan jaiotakoa duten neska-mutikoak ere - %100-. Gurasoak kanpotarrak, edo kanpoan jaiotakoak direnean, ostera, gaztetxoaren herena erdaldunen multzoan dago **(5. grafikoa)**

5. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GAITASUNA GURASOEN JATORRIAREN ARABERA



Gurasoak kanpotarrak dauzkaten haur eta gazteek hizkuntzaren gaitasunean erakusten duten portzentaia txikiago horren azpian, ordea, litekeena da bestelako aldagai batzuek ere eragina izatea. Datu hori eskuartean ez badaukagu ere, okertzeko beldur handirik gabe esan dezakegu gurasoak kanpotarrak dauzkaten ikasle horiek, gehienak bai behintzat, ikasketak hasita iritsi dela herrira eta gainontzeko ikaskideek baino urte gutxiago daramatzatela euskararekin harremanetan.

2.4. Gurasoen hizkuntza gaitasuna eta bilakaera


Azterketaren xedea haur eta gazteen hizkuntza portaera aztertzea izanagatik ere, pentsatu dugu merezi duela gurasoen hizkuntza gaitasuna eta, batez ere, gaitasun horrek izan duen bilakaera zein izan den ikustea, euskarara hurbiltzeko egin duten ahaleginaren neurria ikuste aldera, besterik ez bada ere.

Aztertutako gaztetxoen gurasoen artean erdaldunak dira nagusi -%48,4-. Elebidun hartzaileak, euskaraz ondo ulertu arren nekez hitz egiten dakitenak, erdaldunengatik gertuago beraz, hamarretik bat dira -%10,9-; euskaldunak, azkenik, %40,2 dira.

Gurasoen hizkuntza-bilakaera nolakoa den aztertzeko, hizkuntza-gaitasuna eta ama-hizkuntza gurutzatu ditugu. Horrela, euskaraz izan dituen galerak eta irabaziak ezagutu ahal izan ditugu. Gurutzapen horretatik eratorritako kategoriak zazpitan bilduko ditugu. Euskaldunen multzoan euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak daude. Elebidun hartzaileen multzoan, partzialki euskaldun berriak eta partzialki erdaldunduak. Eta, azkenik, erdaldun elebkarren multzoan, guztiz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak.

Soraluzeko gurasoen artean *euskaldun zaharrak* -%28-, *jatorrizko elebidunak* %6,7 eta *euskaldun berriak* %5,6. Aldi berean, *partzialki euskaldun berriak* %7,1 dira. Bestalde, *partzialki erdaldunduak* %3,8 eta *guztiz erdaldunduak* %0,4. Azkenik, *erdaldun zaharren* portzentajea %48koa da, aztertutakoen ia erdia. Ez dira asko, ikus litekeenez (**6. grafikoa**), erdaldun izanik euskaraz ikasteko nolabaiteko ahalegina egin dutenak - %12,7-.

6. GRAFIKOA: GURASOEN HIZKUNTZA BILAKAERA



3.- EUSKARAREN ERABILERA

3.1. Erabilera guneak

Soraluzeko haur eta gazte euskaldunen euskararen erabilera aztertzeko orduan aintzakotzat bi eremu hartu ditugu, gizarteratzeko guneak (etxea, ikastetxea eta kalea) eta aisialdiko bestelako guneak (kirola, musika, ludoteka, dantza, erligioa...). Dударik ez dago horiek direla aztergai ditugun haur eta gazteen sozializazio prozesuan pisurik gehien duten esparruak.

Euskaldunak ez diren neska mutikoez euskaraz nekez egingo dutenez, horretarako gaitasunik ez daukate eta, gaitasun tipologia bikoitzean euskalduntzat jo ditugun gaztetxoek - % 92- erabilera da aztertu duguna; horiengan oinarritu da, salbuespenak salbuespen⁵, azterketa eta horiei dagozkien atal honetan jaso ditugun datuak.

Erabilerari buruzko daturik gehienak gaztetxoek beraiek aitortu duten erabilerari dagozkio. Inkesta ororekin gertatzen den moduan, datuak ez dira behaketa zuzenaren bitartez jaso, ikasleen beraien edota beren gurasoek – ikasleen adinaren arabera- galderei emandako erantzunen bitartez baizik. Hala ere, arestian aipatutako gune horietako bitan, eskolan eta lagun artekoan alegia, inkesta bidez jasotako erantzunak zuzeneko behaketarekin osatu ditugu. Erabilerari buruzko informazio osagarria eskuratu dugu modu horretara, aitortutakoaren aldean fidagarritasun askozaz ere handiagoa daukana. Erabileraren neurketa horrek, gainera, aitortutako datuen eta benetako datuen arteko aldea zenbatekoa den ikusteko ere balio izan digu.

3.1.1. Euskararen erabilera familian

Lehendabiziko urratsean familia arloko datuei begiratu diegu, Soraluzeko haur eta gaztetxoek aita, ama eta anai-arrebekin hizketa egiterakoan zein hizkuntza erabiltzen duten jakiteko asmoz.

⁵ Hainbat eremuren kasuan, eskola eta lagun artea hain zuzen ere, datuak bi modutara jaso ditugu, erdaldunak aintzakotzat hartuta, batetik, eta erdaldunak aintzakotzat hartu gabe, bestetik. Gauza da eremu horietako erabilera bera ere bi modutara aztertu dugula: aitortua, inkesta bitartez; eta erreala, behaketa bitartez. Bi horiek konparagarriak izan daitezten, beraz, beharrezkoa da gaztetxoek erabileraz inkestak eman dituen emaitzetan erdaldunak ere kontuan hartzea.


Datuak begiratu hutsarekin ohartu gara harreman mota ezberdinen artean aldeak daudela. Hartu-eman bertikaletan (guraso eta seme-alaben artekoa) gutxiago erabiltzen da euskara hartu-eman horizontaletan (anai-arreben artekoa) baino. Gaztetxo euskaldunak beraien anaia, ahizpa nahiz arrebarekin proportzio handiagoan egiten dute *euskaraz erdaraz hainbat ala gehiago* - %67-, aitarekin - %39,4- edo amarekin – %50,6 baino.

Harreman mota ezberdinen arteko alde horrek, ordea, ezinbestean behar du izan horrela; logika bati erantzuten diola esan nahi dugu. Izan ere, guraso askok ez daki euskaraz eta, ondorioz, horien seme-alabei ezinezkoa zaie gurasoekin euskaraz aritzea. Alderaketa zuzena eta arrazoizkoa izan dadin, beharrezkoa da gurasoen hizkuntza gaitasunak aurrez eman ditugun datuetan izan dezakeen eragina neutralizatzea.

Behin eragin hori neutralizatuta, harreman motaren arabera alderik apenas badagoela konturatu gara. Guraso biak euskaldunak dituzten gaztetxoek arteko %80,7k *beti euskaraz edo euskaraz erderaz baino gehiago* egiten du berba bere anai-arrebarekin. Gaztetxo horien arteko %76,7k *beti euskaraz edo euskaraz erderaz baino gehiago* egiten du berba aitarekin -74,3- eta amarekin -79,4-.

Aldea badago, ordea, eta nahikoa handia, portzentaiak gurasoen hizkuntza ezagutzaren arabera aztertuz gero. Euskaraz biek jakin, aitak eta amak, ala bietako batek bakarrik jakin, euskararen erabilera asko aldatzen da. Erabilerak behera egiten du, nola harreman horizontalean, hala harreman bertikalean ere. Gurasoetako bat erdalduna daukaten gaztetxoek %52,1k egiten du *beti euskaraz ala euskaraz erderaz baino gehiago* anai-arrebarekin **(7.grafikoa)**. Gurasoetako bat erdalduna daukaten gaztetxoek %49,3k egiten du *beti euskaraz ala euskaraz erderaz baino gehiago* euskaraz dakien gurasoarekin.


7. GRAFIKOA: ERABILERA ANAI-ARREBEKIN GURASOEN HIZKUNTZA EZAGUTZAREN ARABERA



Urrats bat gehiago eginez, gurasoen arteko euskararen erabilera aztertu dugu. Guraso biak euskaldunak izanda %83 da neurri batean edo bestean euskara darabilena; %16,8k erdara baino ez du baliatzen beren harremanerako. Bikote euskaldunen arteko %18,8k adierazi dute *beti euskaraz* aritzen direla beraien artean; %5,9k *euskaraz erdaraz baino gehiago* egiten dutela esan dute; %38,6k *euskara erdara adina* erabiltzen duela esan du eta %19,8k *erderaz gehiago* egiten duela euskaraz baino.

Familian euskaraz dakitenen kopuruak familiako kideen arteko erabileran daukan garrantziaren adibide oso argia bazkalorduetako euskararen erabilera da. Esan bezala, oso handia da gurasoetako batek euskaraz ez jakiteak familiako harremanean duen eragina. Guraso biak euskaldunak direnean, familia osoa euskalduna denean alegia, %70,3k *beti euskaraz* -50,5- ala *euskaraz erderaz baino gehiago* -19,8- berba egiten du. Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, ordea, *beti euskaraz* ala *euskaraz erderaz baino gehiago* %19,1ek egiten du. **(8. grafikoa)**

8. GRAFIKOA: ERABILERA BAZKALORDUETAN GURASOEN HIZKUNTZA EZAGUTZAREN ARABERA



3.1.2. Euskararen erabilera ikastetxean

Aztertu ditugun gaztetxoak hezkuntza sistemaren eraginpean daudenez, beharrezkoa da eremu edo ingurune horretan daukaten hizkuntza portaera zein den ere ikustea. Helburu hori lortze aldera, bi egoera ezberdin aztertu dira, ikasgela barruko harremanak eta jolasordukoak.

Lehendabiziko gauza aipatu behar dena da ikasgela euskararen erabileraren euskarri garrantzitsua dela Soralarazeko haur eta gaztetxo euskaldunentzat. Izan ere, egoera horretan ematen dira euskararen erabilpen kopururik handienak.

Hamarretik zazpi pasatxok - %74,8- *beti euskaraz* edo *euskaraz erdaraz baino gehiago* hitz egiten duela aitortzen du ikaskideekin ikasgelan. Ikasgelatik kanpora, jolasorduetan, hamarretik bost dira -%54,9- beren ikaskideekin beti euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago hitz egiten duten gaztetxoak. Aldea, bistan dago, handia dela, 20 puntukoa. Alde hori, gainera, dezente handiagoa da *beti euskaraz* dihardutenen artean - 16,5-, *euskaraz erdaraz baino gehiago* dihardutenen artean baino -3,4-.

3.1.3. Euskararen erabilera kalean


Haur eta gaztetxoek euskararen erabilera txikiagoa bada jolasorduan ikasgelan baino, erabilera hori are txikiagoa da kalean. Euskaraz egiten dutenen portzentaiak eta intentsitateak behera egiten dute gaztetxoak ikaskideekin kalean daudenean. Nolanahi ere den, jolasorduko erabileratik kaleko erabilerara dagoen jauzia (16) ikasgelatik jolasordura dagoena baino txikiagoa da (20).

Ez dira hamarretik laura iristen -%39,1- kalean ikaskideekin *beti euskaraz* edo *euskaraz erdaraz baino gehiago* egiten dutenak. Gaztetxoek hamarretik hiruk -%29,32- *beti erdaraz* edo *erdaraz euskaraz baino gehiago* egiten dute.

Bistan da, hortaz, ikasgelatik urruntzen diren neurrian, areagotu egiten dela gaztetxoek erdaraz erabiltzeko duten joera. Badirudi ikasgelak berak eta irakaslearen presentziak euskara egitera bultzatzen/behartzen duela gaztetxoak; hortik kanpora, ordea, obligazioak gutxiago dira eta ikasleak askatasun gehiagoz aukeratzen du erabiliko duen hizkuntza, eta aukera horretan erdaraz indarra hartzen du (9. grafikoa).

Nabarmentzekoa da aztertutako hiru esparruetan, proportzio diferentean bada ere, euskararen presentzia gailendu egiten zaiola erdarazkoari. *Euskaraz* edo *euskaraz baino gehiago* egiten dutenak gehiago dira nola ikasgelan, hala jolasorduan eta baita kalean ere, *erdaraz* edo *erdaraz euskaraz baino gehiago* egiten dutenak baino. Esandakoari, kalean euskaraz duen presentziari bereziki, handiegia iritzi liezaioke norbaitek. Ez dugu ahaztu behar, datu hauek, aurreko guztiak bezala, erabilera aitortuari dagozkiola. Aurreraxeago izango dugu aukera inkesta bidez jasotako datu hauetako batzuk – jolasordua eta kaleari buruzkoak - erabilera errealekin alderatzeko.

9. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA ESPARRUAREN ARABERA



3.1.4. Bestelako aisialdi gune eta jarduerak

Gizarteratzeko oinarrizko guneekin batera, gaztetxoek gizarteratze prozesu horretan garrantzitsuak diren bestelako guneetako erabilera aztertu dugu atal honetan. Arestian aipatu dugunez, familia eta hezkuntza sistema ez ezik, badira gizarteratzeko beste harreman-ingurune batzuk ere, adinean gora egiten duen neurrian, haurrak gizarte ukipen konplexuagoen beharra izaten baitu.

Ikastetxetik kanpoko lau jarduera, *ludoteka, musika eskola, parrokia* eta *eskola kirola*-, aukeratu ditugu haur eta gazteen aisialdiko denboran euskararen erabilera aztertzeko. Uste dugu bostak ere herriko neska-mutikoen sozializazio prozesuan garrantzia handiko aisialdi guneak direla eta, ondorioz, adierazgarriak direla jasotako erabilera portzentaiak. Kasurik txarrean, eskola kirolarenean, gaztetxoek %40 dira jarduera hori burutzen dutenak.⁶

Oro har euskararen erabilera handia da lau jardueretan; bai gaztetxoek irakasle edo hezitzaileekin dihardutenean, baita taldekideekin dihardutenean ere. Hezitzaileekiko harremanean *euskaraz* edo *euskaraz erdaraz baino gehiago* berba egiten dutenak %75etik gora dira jarduera guztietan. Taldekideekiko harremanean, *nagusiki euskaraz* egiten dutenak, batzuek beste, %72,6 dira (**4. taula**).

	Beti euskaraz	Euskaraz gehiago	Bietan berdin	Erdaraz gehiago	Beti erdaraz	Hartzaileak
Ludotekan hezitzailearekin	82,1	9,8	6,3	1,1	0,5	173
Ludotekan taldekideekin	46,5	24,7	21,8	4,1	2,9	
Musika eskolan hezitzailearekin	75,2	10,6	11,5	0	2,6	113
Musika eskolan taldekideekin	65,7	18,1	8,6	2,9	4,8	
Parrokian hezitzailearekin	60,6	16,7	18,9	0,8	3	132
Parrokian taldekideekin	44,5	26,6	19,5	4,7	4,7	
Eskola Kirolean hezitzailearekin	62,6	16,5	13	6,1	1,7	115
Eskola Kirolean taldekideekin	40,4	23,8	26,6	5,5	3,7	

⁶ DBHko bigarren zikloko ikasleek, hirugarren eta laugarren mailakoek alegia, ez dute ez ludotekan ez eskola kiroleko ekintzetan parte hartzen.


Azterketa honetan jaso ditugun erabilerari buruzko datuak ahozko erabilerari buruzkoak izan dira. Nahi izan dugu, ordea, oso labur bada ere, bestelako hizkuntza trebetasunetan euskarak daukan presentzia aztertu **(10. grafikoa)**. Horretarako, gaztettoek aisialdi intimoagoan dauzkaten hizkuntza ohiturak aztertu ditugu. Irakurri, musika entzun, telebista ikusi eta interneten nabigatu zein hizkuntzatan egiten duten jakin nahi izan dugu.

Kontua da, irakurketari dagokiona izan ezik, gainontzeko jarduerak Sorraluzeko gaztetto euskaldunek gehiago egiten dituztela erdaraz euskaraz baino.

Honela, gaztetto euskaldunen %89,1ek *euskara erdaraz hainbat edo gehiago* darabil irakurtzeko garaian. Portzentaia altu horren arrazoia litzateke gaztettoen irakurgaiak beren irakasprozesuaren osagarri direla adin hauetan oraindik eta, irakaskuntza euskaraz izaki, irakurgaiak ere euskarazkoak hautatzen dituzte edo hautatu arazten dizkiete. Esandakoaren froga argia dira lehen hizkuntza moduan erdara baino ez duten gaztettoen irakurketa ohiturak. Etxean erdara baino ikasi ez duten gaztetto horien %82k euskaraz irakurtzen du erdaraz hainbat edo gehiago eta horietatik %11,8k beti euskara darabil irakurtzerakoan.

Bestelakoak dira gauzak, ordea, telebistaz, musikaz ala internetaz ari bagara. Hauetan, irakaskuntzaren eragina edo ez dago edo txikiagoa da. Euskarazkoaren eskaintza ere askoz murriztagoa da erdaraz dagoenaren aldean. Hori horrela, gaztetto euskaldunen erdiek erdara euskara baino neurri handiagoan darabilte musika entzutean -%46,6- eta interneten nabigatzerakoan -%52,6-. Telebista ikusteko orduan, erdaraz ikusteko ohitura nagusi bada ere, %88k aitortzen du erdaraz euskaraz hainbat ala gehiago ikusten duela, euskararen erabilera handiagoa da gainontzeko jardueretan baino. Aipatutako esparru hauetan guztietan, ama hizkuntzaz euskaldun direnek euskararen aldeko portzentaia handiagoak erakusten dituzte.

10. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA AISIALDIKO HAINBAT JARDUERATAN




3.2. Erabileraren banaketa soziala

3.2.1. Ama hizkuntza

Soraluzeko gaztetxoen erabilera aztertzeko orduan, bada aldagai bat bereziki azpimarratu beharrekoa, inkestatuaren ama hizkuntza alegia. Aldagai horren baitan dezente aldatzen dira euskararen erabileraren portzentaiak. Alde horiek aztertutako gune guztietan ikusi ditugu **(11. grafikoa)**.

Ama hizkuntza moduan euskara bakarrik daukaten gaztetxoek askoz gehiago erabiltzen dute euskara ama hizkuntza moduan erdara bakarrik daukatene baino. Alde horiek, ordea, ez dira berdinak gune guztietan. Askoz handiagoak dira, ikaragarri handiak gainera, ikasgelatik kanpoko guneetan. Ama hizkuntza moduan erdara bakarrik daukaten gaztetxoek %62,3k euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten du ikasgelan. Jolasorduan gaztetxo horietatik %30ek baino ez du egiten euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago. Kalean, euskaraz edo euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenen portzentaia %14,5koa da. Azken datu hori kezkatzeko datua da, ez baitugu ahaztu behar ama hizkuntza modura erdara bakarrik duten gaztetxoak %40,6 direla.

11. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA ESPARRUKA AMA HIZKUNTZA ERDARA DUTENEN ARTEAN



Ama hizkuntzak erabileran daukan eragin hori ezagutzen somatu genuenaren oso antzekoa da. Esan nahi dugu 2.2.1 atalean ikusi genuela gaztetxoek ama hizkuntzak hizkuntza gaitasunari buruzko emaitza ere asko baldintzatzen zuela. Horrek frogatzen du gaitasunak, eta zehatzago esanda erraztasunak, hizkuntza erabileran eragin handia daukala. Hizkuntza batean aritzeko erraztasuna hizkuntza horren erabileran eragiten duten faktoreetako bat da harreman sarearekin, gune soziolinguistikoarekin eta interesarekin batera. Aztergai dugun unibertsoan, gainera, esan genezake, okertzeko batera beldurrik gabe esan ere, gaztetxoek

euskaraz aritzeko duten erraztasuna dela erabileran eragiten duen faktorerik garrantzitsuena edo bakarra. Izan ere gune soziolinguistikoa berbera da gaztetxo guztientzako, harreman sarea ere berbera eta euskalduna da eta interesak adin horietan apenas daukala eraginik pentsa liteke.


3.2.2. Sexua

Gaztetxoek ama hizkuntzak erabileran eragin nabarmena duen bitartean, ezin da beste horrenbeste esan sexuari dagokionean. Mutilek zein neskek oso portzentaia antzekoan hitz egiten dute euskaraz aztertuak izan diren gune guztietan. Hainbat azterketetatik ondorioztatzen omen da emakumezkoek gizezkoek baino euskara gehiago egiten dutela azkenaldian, eta sexuen arteko desberdintasunik handiena, gainera, gazteen artean gertatzen dela. Horretarako arrazoi modura hiru aipatu ohi dira, euskararen transmisioa eta haurren heziketa emakumeek garatzen dutela, bete ohi dituzten lanbideetan euskararen eskaera eta erabilpena altuagoa dela eta eskolorduz kanpo neskek eta mutilek oso praktika desberdinak dauzkatala. Bistan da lehendabiziko arrazoi biek ezin dutela eraginik izan aztertu ditugun adin-taldeetan eta, esan bezala, hirugarren arrazoiaren eraginik ez dugu somatu.

3.2.3. Adina

Hizkuntza gaitasunarekin gertatzen zen moduan, ez da adinaren eraginik somatzen ikasleen euskararen erabilerari buruzko datuetan. Besterik pentsa zitekeen arren; alegia, urteetan gora egin ahala erderaren erabilera handiagotu egingo zela, Soraluzeko gaztetxoek artean ez da horrelakorik ikusten. Bai ikusten da, ordea, erdararen presentzia oso nabarmena adin tarte guztietan, baita gaztetxorik gazteenengan ere. Esate baterako, 6. urteko gaztetxoek artean %52,95 *beti erderaz edo erderaz euskaraz baino gehiago* aritzen da lagunetkin kalerik.

12. GRAFIKOA: KALEAN LAGUNEKIN BETI ERDERAZ ALA ERDERAZ EUSKARAZ BAINO GEHIAGO EGITEN DUTENAK ADINAREN ARABERA



3.3. Erabileraren kale neurketa

Erabilerari buruzko atal honen sarrerako hitzetan esan dugun moduan, erabilerari buruzko orain arteko datuak, baita gainontzeko bi ataletan gaitasunari eta jarrerari buruz emandakoak ere, gaztetxoek beraiek aitortu duten erabilerari dagozkio. Jakina da datu horiek, erantzuten duenaren galbaetik pasata dauden neurrian, ez dutela errealitatea erabateko fideltasunez islatzen; edo ez islatzearen arrisku hori badagoela behintzat, nahiz eta hori beti gertatzen den horrela. Horregatik, inkesta bidez jasotako erantzunak osatu egin ditugu zuzeneko behaketarekin. Horrela, errealitatetik gertuago egon litezkeen datuak eskuratzearekin batera, aitortutako datuen eta benetako datuen arteko aldea gutxi gora-behera zenbatekoa den ikusteko aukera izango dugu. Gutxi gora-beherako konparaketa diogu izan ere zaila egiten baita konparaketa zuzena egitea, datuak modu ezberdinean jasota daudelako eta irakurri ere modu ezberdinean irakurri behar direlako.

Kale neurketak euskararen ahozko erabilera neurtzen du. Behaketa bidezko datu-bilketa da. Kale neurketan, inkestetan ez bezala, mintzatzen ari denari ez zaio ezer galdetzen, entzun eta hizkuntza jasotzen da modu objektiboan. Lortzen dugun emaitzak ez digu esaten zenbatek egiten duen euskaraz, baizik eta bataz beste, zenbat egiten den euskaraz une eta leku bakoitzean.


Kale neurketa bi gunetako datu objektiboak lortzeko erabili dugu, ikastetxeak eta kalekoak. Ikastetxean, ordea, ikasgelatik kanpoko datuak bakarrik jaso ditugu neurketa bitartez, ez ikasgelakoak. Jolasorduetako erabilera aztertu dugu. Ikastetxetik kanpora, berriz, ikastetxeetako sarrera-irteeretakoa eta kalekoa.

Gune bakoitzean bi neurketa egin ditugu, bina neurketa sarreran, irteeran, jolasorduan eta kalean. Adina eta sexua erabili ditugu aldagai moduan. Neurtutako elkarrizketa kopuruari dagokionean, berriz, esan behar dugu ikastetxearen eremuan 81 elkarrizketa neurtu ditugula eta kalean, berriz 248.

Soraluzeko gaztetxoaren artean, ikastetxean bertan, baina ikasgelatik kanpora, **jolasorduan** alegia, euskararen erabilera %55 da. Badirudi jolasorduak berak, sarrera-irteera eta kalea baino eremu arautu edo akademikoagoa izanda, eskola-garaiaren zatia baita, lotu egiten duela gaztea apur bat eta euskararen erabileraren euskarri edo bihurtzen dela. Jolasorduak, gainera, irakasleen nolabaiteko zaintzapean egiten dira eta horrek ere izan dezake bere eragina.


Portzentaiak ez dira berberak gaztetxoak adinaren arabera aztertuta. Inkesta bidez jasotako emaitzekin gertatzen ez zen moduan, adinean gora doazen neurrian euskararen erabilerak behera egiten du. Hala, Lehen Hezkuntzan euskararen erabilera 61,9 den bitartean, Bigarren Hezkuntzan erabilera 42,8 da (**13. grafikoa**).

13. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA JOLASORDUAN ADINAREN ARABERA



Ikastetxetik kanpora, berriz, gaztetxoak ikaskideekin **kalean** daudenean, euskararen erabilera %48,5 da, jolasordukoa baino ia zazpi puntu bajuagoa. Kaleko portzentaietan ere aldea dago Lehen Hezkuntzako ikasleetatik – %56,8- Bigarren Hezkuntzakoetara -%37,2- (14. grafikoa).

14. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA KALEAN ADINAREN ARABERA



3.4. Erabilera aitortua eta benetakoa


Erabilerari buruzko atal honekin bukatzeko aurreko atal bietan aztertutako erabilerari buruzko datuak, inkesta bitartez jasotako erabilera aitortuari buruzkoak eta behaketa zuzenaren bitartez jasotakoak alegia, erkatu egin ditugu. Erkaketa hori jolasorduko eta kaleko esparruetan egin dugu, esparru horietan baino ez baititugu era bietako neurketak egin.

Esan behar da erkaketa hori egiteko erabili ditugun inkesta bidez jasotako emaitzak euskaldunen eta erdaldunen erabilerari buruzkoak izan direla, alegia, orain artean ez bezala, inkestatutako gaztetxo guztien erabilerari buruzko datuak hartu ditugula kontuan (289) eta ez euskaraz egin ahal izateko nahikoa gaitasun daukateneana soilik (266). Hori horrela egin dugu erkaketa zuzenagoa izan dadin, izan ere, behaketa bidezko neurketan gaztetxo guztien erabilera da aztertu duguna, euskaldunena nahiz erdaldunena.

Espero zitekeen moduan, aldea dago neurketa batetik bestera. Euskara gehiago erabiltzen da erabilera hori inkesta bidez aztertzen denean behaketa zuzenaren bidez aztertzen denean baino. Alegia, Soraluzeko gaztetxoek aitortzen dutena baino gutxiago erabiltzen dute euskara.

Jolasorduan euskararen erabilera aitortua %63,1ekoa den bitartean, benetako erabilera, behaketa zuzenaren bidez jasotakoa, %55ekoa da. Antzeko zerbitu gertatzen da kaleko erabilerarekin, nahiz eta azken esparru honetan neurketa bien arteko aldea txikiagoa den. Horrela, erabilera aitortua %51,1ekoa den bitartean, neurketa bidez jasotakoa %48,5ekoa da. **(15. grafikoa)**

15. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA AITORTUA ETA BEHATUTAKOA



4.- EUSKARAREKIKO INTERESA ETA JARRERA


Atal honetan, aztergai ditugun gazteek eta beren gurasoek euskararekiko duten interesera eta jarrerara hurbilpen moduko bat egin nahi izan dugu. Ez ditugu jarrera eta iritzien azpian egon litezkeen arrazoi eta diskurtsoak aztertu, bestelako ikerketa-teknika eta planteamenduak beharko lituzkeelako horrek. Baieztapenik azalekoenak biltzera mugatu gara. Ezagutu nahi izan ditugu Soraluzeko gazteek eta beren gurasoek euskararenganako nolako atxikipen maila duten, ez besterik. Jarraian datozen emaitzak, beraz, helburu horri lotuta daude eta, azalekoak izanagatik ere, bidea erakusten dutelakoan gaude.

Esan bezala, euskararenganako daukaten interesaz eta jarreraz azterketa honetan aztergai ditugun gaztetxoen gurasoei eta gaztetxoei beraie galdetu diegu. Ez, ordea, gaztetxo guztiei, gaztetxorik helduenei baizik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dihardutenei hain zuzen ere (12-16 urtekoak). Eta hala behar du, derrigor, ze hortik beherakoek iritzia ondo finkatu gabe daukate oraindik.

4.1. Interesa

Soraluzeko DBHko **gaztetxorik** gehienek -%86- euskararekiko interes⁷ *nahiko handia* azaldu dute, %58k *handia* eta %28k *nahikoa*. Interes *txikia* edo *batere interesik* ez duela gaztetxoen %7k aitortu du. Gainontzekoek, %6k, *erdipurdiko* interesa daukate. **(16. grafikoa)**

16. GRAFIKOA: GAZTETXOEN EUSKARARENGANAKO INTERESA



⁷ *Interes hitzaren adierarik ohikoena erabili dugu, psikolinguistika eta antzekoetan interes hitzak duen esanahitik urruti, edozein hiztegik ematen duen definiziora mugatu gara. "Garrantzizkoa dela edo arreta merezi duela uste denaren aurrean ernatzenden gogo-jarrera edo egoera".*

Interesa asko aldatzen da gaztetxoek *ama hizkuntza* bata ala bestea izan. Honela, ama hizkuntza bezala *euskara* izan duten gaztetxo kasik guztiek *interes handia* -%82,05- edo *nahikoa* -%21,8- dutela diote. Gauzak oso bestelakoak dira, ordea, ama hizkuntzaz *erdaldun* bakarrik diren gaztetxoentzat. Horietako %30ek *erdipurdiko* interesa, *txikia* ala *inolako interesik* ez dutela aitortu dute.

Gaztetxoek **gurasoak** ere antzeko kopuruetan dabilta, apur bat jaisten bada ere interes handia edo nahikoa dutenen portzentaia -%75,3-. Interes *txikia* edo *batere interesik* ez dutenak %10,3 dira. Gainontzekoek, %14k, *erdipurdiko* interesa adierazi dute.

Gaztetxoek kasuan *ama hizkuntza* baldin bazen interesa baldintzatzen zuena, gurasoen artean ere *hizkuntza gaitasuna* da, *jatorriarekin* parez-pare, interesean gehien eragiten duen faktorea. Gurasoak *euskaldunak* direnean %72k euskararenganako interes handia duen bitartean, gurasoak *erdaldunak* direnean interes handia %6,6k baino ez du agertzen. Erdaldun hauen artean %16,5ek interes txikia daukatela esaten dute eta %8,8 dira inolako interesik ez dutela diotenak.

Jatorriak ere nabarmen eragiten du interesean. Bertan jaiotakoek artean %91k interes handia edo nahikoa adierazi du. Biak kanpotarrak direnean, aldiz, %34,7 besterik ez da izan euskararenganako nahikoa interes agertu duena. Kanpotarren %20,4k interes txikia duela esan du eta 14,3k ez du inolako interesik agertu.

4.2. Jarrera

Soraluzeko Bigarren Hezkuntzako **gaztetxorik** gehienek *hizkuntza propiotzat* daukate euskara; euskara beraiena den elementutzat jotzen baitute %75,5ek. Halaber, kopuru beretsua da -%71,9- euskara *beharrezko hizkuntza* dela pentsatzen duena. Gaztetxoek %73,4ri garrantzitsua iruditzen zaio *denok euskara ikastea*; eta %87,8k uste du pertsonaren garapenerako *abantaila* dela *hizkuntza bi jakitea*. Interesarekin gertatzen zen bezala, portzentaiak nahikoa diferenteak dira gaztetxoek ama hizkuntza zein denaren arabera. Horrela, arestian aipatu ditugun kopuruek gora egiten dute nabarmen - %92- inkestatuen ama hizkuntza euskara denean; eta, behera egiten dute, berriz, nabarmen oraingoan ere, ikasleak jaiotzez erdaldunak direnean -%52,6.⁸


Gurasoen jarrera ez da seme-alabekingo oso ezberdina, zertxobait euskararen aldekoagoa. *Hizkuntza propiotzat* dauka %83,9k; *beharrezko hizkuntza* dela uste du %75,8k; *denok euskara ikastea* garrantzitsua da %91,5entzako eta pertsonaren garapenerako *bi hizkuntza jakitea abantaila* dela %90,1ek pentsatzen du. Gurasoen hizkuntza ezagutzak eta, batez ere, jatorriak apur bat aldatzen dituzte kopuruak. Bikotea zenbat eta erdaldunagoa izan, eta, batez ere, bikotean kanpotarrak zenbat eta gehiago izan – 10 bat puntuko aldea dago zenbaitetan- , orduan eta epelagoa da euskararenganako jarrera.

⁸ Kopuru hau “euskara gurea da”, “euskara beharrezko hizkuntza da” eta “garrantzitsua da denok euskara ikastea” galderei emandako erantzunen bataz bestekoa da. Ez dago bataz besteko horretan sartuta “ hizkuntza bi edo gehiago ikastea abantaila da pertsonaren garapenerako” galderaren emaitza, ama hizkuntza erdara dutenen portzentaia esanguratsua delarik -%82- baieztapen horrekin ados dagoena.

Aipatu berri dugun alde hori, baina, ez da bera beti. Gurasoen jarrera aztertzeko 8 baieztapen erabili baditugu, aldeak, batez ere baieztapen horietatik bitan daude, hizkuntzaren pertenezia-ekin eta hizkuntzaren behar-ekin/obligazio-ekin zerikusia dutenetan. Bikote kanpotarren artean %54k eta erdaldunen artean %32k ez daukate esplizitoki propozatzen euskara. Halaber, euskara beharrezkoa ote den galdetzen zaienean kanpotarren %59k eta erdaldunen %48k ez dute baietz erantzuten. Bestelako kontuez galdetzen zaienean euskaldunen/erdaldunen eta bertakoen/kanpotarren artean dauden aldeak ez dira hainbestekoak; zenbaitetan, gainera, portzentaia parekoak ematen dituzte.

Esandakoaren adibide modura, euskaldun eta erdaldunek egindako galderen aurrean agertu dituzten adostasunaren portzentaiak ikus litezke hurrengo grafikoan (**17. grafikoa**).


17. GRAFIKOA: GURASOEN EUSKARARENGANAKO JARRERA HIZKUNTZA EZAGUTZAREN ARABERA



Merezi du ere jatorriz kanpotarra den kolektiboari tentu gehixeagoz begiratzea. Pentsa liteke, daukaten adinagatik batez ere, kanpotar horiek orain ez urte asko heldutako etorkinak direla. Lanaren sarrerako hitzetan esan dugun moduan dezente dira herrira azken urteetan iritsi diren kanpotarrak. Dударik ez da hizkuntza normalkuntza lanetan dihardugunontzako gizatalde oso garrantzitsua dela hau, geroz eta gehiago izango diren etorkin hauek euskarara erakartzen asmatzea oinarri-oinarizko kontua izango baita euskarak aurrera egin dezan.

Hurrengo grafikoan, bada, (**18. grafikoa**), bikote etorkinen galderari eman dizkieten erantzunak jarri ditugu. Bikote hauek etorkin kolektiboaren zati txiki bat baino ez diren arren, uste dugu balio duela beraien iritziak kolektibo osoaren hizkuntza idearioa edo euskaraz, kasu honetan, dituzten iritzi eta usteak zeintzuk diren jakiteko.

18. GRAFIKOA: BIKOTE ETORKINEN EUSKARARENGANAKO JARRERA



Amaitzeko, azpimarragarria iruditu zaigu, ez gurasoen artean, ez ikasleen artean, dagoela euskararen kontrako jarrera handirik, iritzi neutroak bai, ez aldekoak ez kontrakoak, baina kontrakoak gutxi, %5etik behera beti.

5.- ONDORIOAK

- Aztertutako gaztetxoek arteko ia guztiak -%92- euskaldunak dira; alegia, euskaraz *ongi* edo *nahikoa ongi* dakite. Nolanahi ere den, euskaldun horietako askok -%21,5- erraztasun handiagoa daukate erdaraz berba egiteko, edota erraztasun berdintsuz egiten dute euskaraz eta erderaz -%32,9-. Kontuan izanik euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreetako bat dela gaitasun erlatiboa edo erraztasuna, aukeran gutxitxo dirudite euskaraz erraztasun handiagoa daukatenak.
- Gaztetxoek erdaraz daukaten gaitasun handi horrek lotura zuzena dauka ama hizkuntza moduan erdara daukaten gaztetxoek kopuru handiarekin. Izan ere, aztertutako gaztetxoek %66k gaztelera etxean ikasi dute, eta horietako %40,6k gaztelera bakarrik ikasi dute. Ama hizkuntza euskara izan dutenek euskarazko gaitasun eta erraztasun handiagoa erakusten dute.
- Horretarako aukera dagoen etxeetan euskararen transmisioa altua izanagatik ere -%88,9-, ez da izan daitekeen besteko altua, %10ek ez baitute euskararen ondorengoetaratzean laguntzen.
- Gurasoen jatorriak ere asko baldintzatzen du gaztetxoek hizkuntza gaitasuna. Honek zerikusia dauka inmigrazioarekin. Azken urteetan atzerriko etorkin dezente jaso duen herria da Soraluze eta etorkin horien seme-alaba gehienak eskolaratze prozesua hasita iritsi direnez, euskarazko gaitasuna ez dute behar bestekoa.
- Aztertutako gaztetxoek gurasoak biztanleria osoa baino erdaldunagoak dira proportzioan -%40-. Guraso erdaldun horien kopuru txiki batek bakarrik -%12,7- egin du euskara ikasteko ahalegina.
- Familiako euskararen erabileran eragin gehien duen faktorea bertako kideen euskarazko gaitasuna da. Gurasoetako bat erdalduna daukaten gaztetxoek nabarmen gutxiago egiten dute euskaraz bai anai-arrebarekin, bai euskaraz dakien gurasoarekin, baita bazkaltzeko orduan guztiak elkarrekin daudenean ere.
- Gaztetxoek euskara gehiago darabilte erdera baino aztertutako hiru esparruetan (etxea, ikastetxea, kalea). Hala ere, ikasgelatik urrundu ahala areagotu egiten da erdara erabiltzeko joera. Erdara erabiltzeko joera hori, gainera, askoz ere nabarmenagoa da ama hizkuntza moduan erdara daukaten gaztetxoek artean.

- Ez da adinaren eraginik somatzen euskararen gaitasunean, bai ordea erabileran. Gaztetxoen portzentaia oso handi batek txiki-txikitatik erderazko gaitasun oso altua erakusten du eta kopuru oso altuak erakusten ditu erdararen erabileran ere.
- Aldea dago gaztetxoek aitortzen duten erabileratik behaketa zuzenaren bitartez jaso diren erabilera. Azken hau, benetakoa, aitotutakoa baino txikiagoa da.
- Irakurketari dagokiona izan ezik, aztertutako hainbat jarduera (telebista, musika, interneta) gehiago egiten dituzte erdaraz euskaraz baino.
- Aztertutako gazte eta beraien gurasoek interes handia eta jarrera aldekoa adierazten dute euskararenganako. Batean zein bestean, ezagutzak eta jatorriak eragin handia daukate. Ez da, ordea, ez batzuegan ez besteengan euskararen kontrako jarrera handirik somatzen.

6.- BIBLIOGRAFIA

- JAUSORO, Nekane. *Gazte euskaldunen eguneroko bizimodua eta bere euskararekiko harremanak*. Hizkuntza Politikarako Sailordetza. 1991.
- IRAOLA, Jose Mari. *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian*. Lasarte-Oriako Udala. 1994.
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki. *Etorkizuna aurrikusten: EAEko gaztetxoan egoera soziolinguistikoa*. Hizkuntza Politikarako Sailordetza. 1995.
- EUSKAL HERRIKO SOZIOLOGIAZKO INKESTA. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. 1996.
- SOZIOLOGIAZKO MAPA. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. 1999.
- AMONARRIZ, Kike. *Euskararen erabilpenaren feminizazioa*. Bat Soziolinguistika Aldizkaria. 1996.
- ALTUNA, Olatz; MARTINEZ, Zesar; BERRI-OTXOA, Kontxesi; JAUSORO, Nekane. *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. HIZNET.